

www.ilanda.eu



AREETA-ERROMOKO GELTOKIKO PLAZA

BERRANTOLATZE-LAN URBANISTIKOA

Getxo, 2007.eko maiatzak 11

www.eginbehardugu.com



Getxoko EAJk hiritarren aurrean aurkeztu nahi duen **programako ardatz nagusietako** bat da hau: **Erromo-Areetako geltokiko plazan dagoen espazioa eta horri atxikita Eusko Jaurlaritzak duena** (egungo aparkalekua) **berrantolatzea**.

Espazio horrek aukera asko eskaintzen baditu ere, gaur egun ez dago behar bezala erabilia, eta hortik dator berrantolatzeko asmoa. Helburuak dira 2.800 metro karratuko espazio horretan berrantolatze-**lan urbanistiko arduratsua, iraunkorra nahiz orainari egokitua** egitea, eta bertan **bateragarriak** izatea alde horretako **hiritarren eskakizunak**, batetik, eta **Getxoko sare sozial eta kulturalerako erreferentzia gune bat egiteko asmoa**, bestetik.

EAJk berriro ere adierazi du zein den bere xedea: Getxo ekimen handiko udalerrria izatea, berritzailea, dinamikoa eta XXI mende hasiera honetan hiritarren beharrei erantzuna emango diena. Horregatik, hauteskunde hauetan bere konpromiso nabarmenetako bat da Areeta-Erromoko geltokiko plaza berrantolatzea. Jarduera horren bidez, **behin betiko irtenbide urbanistiko bat emango zaio Getxo udalerrian dagoen espazio estrategiko horri**. Gainera, horrela erantzuna emango zaio hiritarren eskaera sozial nagusi bati: geltokiko plaza jendearentzat erasoagoa eta atsegina izatea eta horrez gain, Gobela ibaiko ibilgutik dauden distantziak ondo zainduz, asmo handiko udal espazio bat sortzea, bertan eraikin berri bat izango duena, Getxoko udal hornidurak Areetan eta Erromon zehar barreiatuta egon beharrean, horren barruan egon daitezen.

Beraz, EAJren konpromisoak bi jarduera garrantzitsu uztartzen ditu: gune horretan ezinbestekoa den berrantolaketa urbanistikoa egitea eta udal zerbitzuetarako funtzio anitzeko zentro bat jartzea, Getxoko hainbat elkarte sozial eta kulturalen eskakizunari –Areetan eta Erromon lokal moderno eta egokiak jartzekoa, alegia- erantzuna emateko.

UDAL ZENTRO BERRIA

Getxoko EAJren planteamendua hauxe da: **Erromo eta Areeta auzoen arteko langak kenduta, lehen trenbidea zegoen lekuan zentro berri bat egitea, espazio moderno bat, integratzailea eta udalerrri osoko bizitza kulturala sustatuko duena; getxotarren artean, kultura garapenerako eta elkarte-bizitzarako oso tresna garrantzitsu bat, gainera metroko irteeraren ondoan kokatuta egongo dena.**

Getxoko EAJk Areetako plazan zentro kultural bezala aurkezten duen proiektuak bere barnean Areetako Kultur Etxea (Azokaren eraikina), Santa Eugeniako Kultur Etxea eta Erromoko Kultur Etxea (udal euskaltegiko behea, Lope de Vega kalean) elkartu nahi ditu. **Espazio berri horren xede eta oinarrizko helburua da XXI. mendean eta aurrerantzean Getxoko Udalak hiritarrei ematen dizkien zerbitzuak bateratzea, hobetzea eta areagotzea.**

Konpromiso hori zehaztuko da gune horren ezaugarri urbanistikoak definitzen diren momentuan, eta ezaugarri horiexen arabera erabakiko da eraikin berria egongo den edo bestela, elkarrekin konektatutako bi azpiegitura egin ote daitezkeen, arlo ezberdinen arteko komunikazioa hobea izan dadin, eta gainera Gobela ibaiko ibilgutik hirigintza-arauek exijitzen duten distantzia bete dadin.

Bestalde, eraikinak berrikuntzaren eta bizi garen garaikoak izango dira, Getxoko EAJk horren aldeko apustua egin baitu, eta horretarako aurkeztuko duten diseinua modernoa, integratzailea eta teknologikoki punta-puntakoa izango da.

Hornikuntza berria Areeta-Erromo alde osorako zerbitzu-zentro izango da, Kultur Etxeak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko aukera emango baitu, bertan kokatuko diren udal zerbitzuen bidez, egungo zerbitzuak bateratuz, areagotuz eta erakundeak hiritarregana hurbilduz.

Helburua da hortxe bertan Kultur Etxeko zerbitzuak –hala nola liburutegiak, erakusketa gelak, bilerak egiteko gelak...- eta beste udal zerbitzu batzuk –hiritarrentzako arreta bulego bat, diru bilketarako bulegoa- bateratzea, eta gainera, hainbat beharri aurre egiteko espazio berriak sortzea –turismo bulegoa, udaltzaingoaren bulegoa, kontsumo bulegoa ...-.

Beraz, bi espazio ezberdinez ari gara:

-Eraikin batean **informazio arloa deritzonerako espazio bat**, eta bertan HAB, turismo bulegoa. Gazteentzako informazio bulegoa, KIUB... eta horiez gain, kultur etxeko zerbitzuak, umeentzako eta nagusientzako liburutegi harrerak, mediateka, ikasteko gelak, tailerrak eta balio anitzeko aretoak.

- Eta **beste espazio batean, Getxoko elkarteak erabiltzeko lokalak**, hau da, bilerak, hitzaldiak, erakusketak, ikastaroak etab. egiteko lokalak. Horrela, Erromo eta Areeta aldeko elkarte sozial eta kulturalak espazio duinetan elkartu ahal izango dira, bertan euren aktibitateak garatzeko ordutegi erosoetan (batez ere, arratsaldeak eta gauak eskatzen da), denontzako zerbitzu tekniko eta administratiboak bertan edukita (ordenadoreak, fax, fotokopiagailua ...), euren lana baldintza hobetan eta prezio bat adostuta egin ahal dezaten.

Garapen sozial eta kulturalerako gune bat izango da, eta horri esker Getxoko elkarte, erakunde eta entitateek egoitza sozial bat erabili ahal izango dute, baliabide tekniko eguneratuak eta elkartzeko gelak edota ekitaldietarako aretoak bertan daudela. Denek erabili ahal izateko lokal multzoa, inor baztertzen ez duena, ordutegi erosoak eta gutxieneko mantenua duena.

EAIren proposamena hau da: Denek erabili ahal izateko espazio horretan erakusketa areto bat, zerbitzu tekniko arruntak, ekitaldietarako areto nagusia, emanaldietarako kabina eta aldagelak, balio anitzeko aretoak (asteburuetan umeek eta gazteek euren aisialdian dituzten beharrak eta eskakizunak betetzeko espazio modularrak) eta elkartzeko gelak; horiez gain, goiko aldean solairu bat, eta bertan balio anitzeko aretoak dantza entseguak egiteko, abesbatzek erabiltzeko, dantza eta musika tailerrak antolatzeko ... leku handia behar duten aktibitateak garatzeko.

Proiektu horretan konpromisoa hartuko da kontuan, berriro ere, bai irisgarritasunarekiko –ezinbestekoa izango denez, edozein pertsona urritu iritsi ahal izango da-, bai teknologia berriekiko eta komunikazioekiko.

PLAZA URBANIZATZEA.

Ekimen honen behin betiko garapenerako beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailarekin egiten ari diren negoziazio guztiak amaitzea. Negoziazio horien xedea gunee horretan egin nahi zituzten **BOEen gaineko trukaketa** baten baldintzak zehaztea da. EAJk bere gain hartu du Eusko Jaurlaritzarekin trukaketa-izapide hori bideratzeko konpromisoa, eta horren arabera, Getxoko Udalak udalerriko beste espazio bat emango du, Areeta-Erromoko plazako alde batean egin behar ziren etxebizitzek bete behar zuten espazioaren truke.

Horrela, **plaza berrantolatzeako proiektua hornidura publikoko jarduera integrala izango da**, bi arrazoirengatik: alde batetik, udalak hiritarren zerbitzurako aurkezten duen funtzio anitzeko zentro delako, eta bestetik, Areeta-Erromoko geltokiko oraingo plazan egin beharreko **azken konponketa** delako, erosoagoa izan dadin. Horrez gain, Gobelako ibai zortasun zonan **oinezkoentzako berdegune bat** (Ajedrez eraikina) sortzea ere proiektuaren barruan dagoelako.

Proiektu hau estrategikoa eta asmo handikoa da, eta horrekin aurrera egiteko, lehenengo urratsa da Gobelako ibilguaren zortasun egoera argitzea, hau da, ezinbestekoa da zehaztea ibilgutik zenbateko distantziataraino erabil daitezkeen espazioa, HAPN aldatzea Gobelako ibilguari eta emariari buruz egin beharreko hidrologia-ikerlan baten arabera, goi mailako erakundeetan –Eusko Jaurlaritzan, zehazki-behin betiko erabaki bat har dezaten, eta horrela, Getxon beharrezkoa den jarduera horrek aurrera egin dezan.